

VII. ELKANO PROGRAMAKO BEKALDIA ESKATZEKO  
FORMULARIOA

BESTE HERRIALDE BATZUETAKO DELEGAZIO  
KOMERTZIAL/PRODUKTIBOETAN LAGUNTZEA

|  |                          |
|--|--------------------------|
| Nº Ref:                                  | ERREF.-16                |
| Enpresaren izena /<br>Nombre de empresa: | NAZIOARTEKO IKT ELKARTEA |
| Sektorea / Sector:                       | Zerbitzuak               |

Bekadunak egonaldia egingo duen delegazio komertzial/produktiboaren kokapen hiria eta herrialdea:

Ciudad y país de ubicación de la implantación comercial o productiva exterior para la que solicita becario:

|                       |            |
|-----------------------|------------|
| Herrialdea /<br>País: | URUGUAI    |
| Hiria / Ciudad:       | Montevideo |

Garatu beharreko proiektuaren izenburua / Título del proyecto a desarrollar:

AREA DE GESTIÓN DE TALENTO HUMANO

Proiektuaren deskribapena: bekadunak egin beharreko jarduerak eta gaitasunak zerrendatu (proiektua errazago ulertzearen egin beharreko jarduerak adierazi):

Descripción del proyecto: indicar la relación de actividades a realizar y las competencias a desarrollar por el becario durante el ejercicio de la beca (realizar un desarrollo amplio para una mejor comprensión del proyecto):

Erakundea irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakundea da, helburu duena GARAPEN EKONOMIKOAREN aukerak hobetzea eta POBREZIA MURRIZTEA. Horretarako, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak sendotuko ditu Latinoamerikan eta Kariben (LK). Bere asmoa da fokua izatea KALITATEKO IKTen EKOIZPENARI eta ERABILERARI lotutako negozioetarako.

Hezkuntza Zientzien edo Ingeniaritzaren arloko edo pareko lanbideetako profesional bat eskatzen da, giza talentuaren kudeaketa estrategikoko prozesu orotan espezializatu nahi duena (ahalduntze eta ziurtatze alderdiak, estrategiak eta tresnak barne). Testuinguru banatu batean jardungo du, hala nola LKn banatutako hainbat diziplinatako profesionalak dituen erakunde batean. Profesional horiek kolektibitatean integratu eta lan egiteko beharrezko abilezietan ahaldundu behar dira, enpresa

## VII. ELKANO PROGRAMAKO BEKALDIA ESKATZEKO FORMULARIOA

### BESTE HERRIALDE BATZUETAKO DELEGAZIO KOMERTZIAL/PRODUKTIBOETAN LAGUNTZEA

mikroaren, txikiaren eta ertainaren (EMTEE) garapenari lotutako erakundearen kolektiboetan bikain jardun daitezten: a) IKT industriako enpresak; b) IKT industriako enpresa bezeroak, LK-ko ekonomia sektore estrategikoenetakoak; c) bi kolektiboetako balio kateak; d) gobernu nazionalak, departamentuetakoak eta tokikoak, enpresa horien garapen ekonomikoaren eta sozialaren katalizatzaile direnak. Erakundeak herrialdeetako bere kideen ekimenak jasotzen ditu, bereak sortzen ditu eta nazioarteko, alderdi anitzeko, nazioko eta tokiko organismoen finantzazioa bilatzen die; hain zuzen ere, profesionalak horietako batean espezializatu beharko du.

Ahalmen profesional horretan, oso garrantzitsua da urrutiko hezkuntza tresnen eta plataformen esperientzia eta bokazioa (bereziki MOOC, baina ez horiek bakarrik).

Oinarriak: lehentasuna da hazkuntza estrategikoaren arloak identifikatzea, erakundearen jomugan dauden kolektiboen giza talentuari dagokionez (aurretik aipatu dira), ahalmenak artikulatuz LK eremuan eta European, Estatu Batuetan eta Ipar Amerikan.

Hau da bere lanaren oinarria: giza talentua prestatzeko eta ziurtatzeko aukerak, tresnak eta eskura dauden gainerako lanabesak identifikatzea eta ziurtatzea; eta enpresen beharrian praktikoko eta estrategikoko eremuetan aukerak sortzea, bereziki EMTEEak eta horiek babesten dituzten erakundeak direnean.

#### Eskatzen den titulua / Titulación requerida para el puesto:

Ingeniaritza, Hezkuntza Zientziak edo parekoak.

#### Eskatzen diren gaitasunak / Competencias requeridas para el puesto:

Pertsona proaktiboak, proiektu eskema batean epekin lan egiteko argitasuna eta malgutasuna dutenak, eta ordutegi ezberdineko banaketa geografikoko egituraren testuingurura etengabe egokitzeko ahalmena dutenak (UTC-6tik UTC+1era).

Erraztasuna izatea lantaldeetan jarduteko, lider edo koordinatzaile baten aginduei jarraikiz, eta komunikazio abilezia bikainak eta pertsonekin harreman onak izateko abilezia.

#### Eskatzen diren hizkuntzak / Idiomas requeridos:

Gaztelania eta ingelesa jarriotasunez erabiltzea.

VII. ELKANO PROGRAMAKO BEKALDIA ESKATZEKO  
FORMULARIOA

BESTE HERRIALDE BATZUETAKO DELEGAZIO  
KOMERTZIAL/PRODUKTIBOETAN LAGUNTZEA

Aldez aurreko esperientzia / Experiencia previa:

Beste trebetasunak / Otras habilidades:

Iruzkinak / Comentarios: